Olarraren aburuz, bere ofizioaren abantailarik onena itzuli behar den obrari itzultzailearen "zigilua" eranstean datza. "Nolabait, zeurea egiten duzu", dio. IÑAKI PORTO

"Teknologia berriek ez dute irakurlerik sortuko"

1985tik literatura euskaratzen dabil **Xabier Olarra**; bere kasa hasi zen, boligrafoa, papera eta pare bat hiztegi besterik ez zituela lanabes

MARTA MORALES

KANPOKO literatura euskaratzen ederki gozatzen du Xabier Olarra itzultzaile eta Igela argitaletxeko zuzendariak. Kontent dago abenduan jaso zuen Dabilen Elea Sariarekin, eta egun *borrokan* ari den James Joyceren *Ulysses* obra entzutetsuarekin. Horretan, teknologia berriak lagungarri ditu, baina horiek irakurle berririk sortuko ez duten susmoa ere badu.

Bere ikasleei irakurtzeko material berria eskaintzeko asmoz hasi zen Xabier Olarra itzulpengintzan. Eta, ordutik, ez da gelditu. Hasieran, irakasle edo Nafarroako Gobernuko itzultzaile zenean, bere lan orduetatik kanpo, mendian edota perretxikotan ibiltzeari denbora kenduz. Ostean, lanbide bihurtuta. 1985. urtean liburuak euskaratzeari ekin zionetik 30 liburutik gora itzuli ditu: urtean bat, gutxi gorabehera. Eta ez zaizkio agortzen itzultzeko-gai izan daitezkeen liburuak eta gogoak. "Mundua liburuz betea dago, are itzuli nahiko nituzkeen baina itzuliko ez ditudan liburuaz beteta", ziurtatu du, serio.

Berriki (abenduaren 19an), Dabilen Elea Saria jaso zuen Donostian. Bizitza osoan zehar euskal literatura itzulpengintzari egindako ekarpen garrantzitsuagatik omenaldi hunkigarria eskaini zioten idazleek, itzultzaileek, zuzentzaileek, irudigileek eta aktoreek, Viktoria Eugenia antzokiko Club aretoan eginiko Euskal Liburuaren Gaua ekitaldian. "Omenaldietara maite zituen edo, gutxienez, begi onez ikusten zituen jendea etorri ohi denez, oso giro atsegina sortu zen", gogoratu du. Horretan, baina, ohiko panegirikoez gain, Shakespeareren sonetoak errezitatuta eta musikatuta izateak ere lagundu zuela ziurtatu du, umoretsu.

Itzuli zuen lehen liburua James M. Cainen *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* izan zen. Jessica Lange eta Jack Nicholson protagonista zituen filma ikusi berria zuela, liburua irakurri eta euskaratzea erabaki zuen, inork argitaratuko ote zuen jakin gabe. Ondo gogoratzen du garai hura Olarrak. "Bordelen bizi nintzen orduan, tesia egiteko asmoz hara joanda. Lagun batek ekarri zidan liburu horren jatorrizkoa Estatu Batuetatik eta, hala, negu batez, papera eta boligrafoa hartu eta itzuli egin nuen", oroitu da.

GOOGLE TRESNA BIDELAGUN Geroztik, itzulpengintzan lan egiteko era asko aldatu dela nabarmendu du eskarmentu handiko itzultzaile tolosarrak. "Lehen, jatorrizkoa, papera, boligrafoa eta hiztegiren bat besterik ez zenituen eskura. Eta, zalantzak kontsultatzeko, berriz, adiskideak edo jatorrizko hizkuntza amahizkuntza zuten lagunak", azaldu du. Orain, lagunen ordez, Google tresna aski ezaguna erabili ohi da. Hala ere, ironia puntu batekin, eta agian ere lasaituta, makinak itzultzailearen lekua hartzeko asko falta dela ziurtatu du. Izan ere, itzulpengintzaren egoera egundokoa ez den arren, duela 30 urte baino askoz hobea dela baieztatu du, gero eta jende gehiago ondo prestatuta baitago lan hau egiteko.

Olarra, behintzat, ez da geldirik egoten. Oraintxe James Joyceren *Ulysses*ekin ari da *borrokan*... eta gozatzen. "Itzultzailearen lanaren alderik onena, batetik, itzuli behar duzun lan hori oso ondo ezagutzera iristen zarela da. Baina, gainera, nolabait, zeurea egiten duzu, zeure zigilua ezartzen diozu", argitu du. Gaztea zela, zoragarriak iruditu zitzaizkion Dashiell Hammett, Raymond Chandler edo Truman Capoteren nobela beltzak. Gero, Ambrose Biercea-ren *Deabruaren hiztegia*, Raymond Queneau-ren *Estilo-ariketak* edo Oliver Sacksen *Antropologo bat Marten* itzultzen ere izugarri gozatu zuen.

Itzultzailea izateaz gain, Igela argitaletxeko sortzaile eta editorea ere bada Xabier Olarra. Lanbide biak uztartzea ez da zaila beraretzat. Izan ere, berak azaldu duen moduan, "idi bera aritu da gurdiari tiraka, batzuetan itzultzaile gisa, eta beste batzuetan argitaratzailez mozorroturik". Helburua mundu osoko literaturako obrarik esanguratsuenetako batzuk itzultzea du helburu argitaletxeak, eta orain arte lortutako emaitzekin pozik agertu da Olarra. Argitaletxeen panorama, berriz, "larri samarra" dela uste du, teknologia berriak egoerari aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeela onartu arren. "Orain sekula ez bezalako aukerak ditugu eskura. Baina teknologia berriek ez dut uste irakurlerik sortuko dutenik. Bada ere, kendu", kexatu da. Bere ustez, irakurle gutxi izan dira beti. "Kontua da euskararen kasuan, gutxi hori oso-oso gutxi dela", nabarmendu du.

EUSKARA, ITOGINEZ BETETAKO ETXEA Euskal literatura-itzulpengintza euskara sustatzeko bidean teila bat besterik ez dela deitoratu du Xabier Olarrak. "Euskararena itoginez betetako etxea da. Gu saiatzen gara mugituta dauden teila batzuk bere lekuan jartzen, baina teilatu horrek konponketa-lan handiak behar ditu", adierazi du.